

AIZKORRI NEGUAN

ALPINISMOA GOIERRIKO BIHOTZEAN

BOST MENDI, BOST IPAR HORMA

Aizkorriko mendikateak Zegamako ipar-zeruertza mugatzen du, kareharri, belar eta pagadizko atze-oihala osatuz. 1551 metrokin denetan garaiena Aketegi bada ere, Aizkorriko Gurutzea eta Arbelaitz arteko gandorra 1500 metrotik behera nekez makurtzen da. Izan ere, gandor honetatik kanpoko Euskadiko mendi guztiak 1500 metrotik beherakoak dira. Urtaro bakoitzak bere xarma duen arren, elurteen etorrerarekin batera, Zegamara amildutako 1000 metroko ipar horma zuriz tindatu eta urtean zehar altxor moduan ezkutatutako kanalak azaleratzen dira, piolet eta kranpoien jolasleku bihurtuz.

Aizkorriko eskalatzeko moduko izotza topatzea arraroa da eta gehienetan belar eta harkaitzak oso gogorra ez den elurte batek estaltzen ditu. Hau dela eta, egun zehatz batzuk izan ezik, pasabide teknikoak gehienetan misto moduan eskalatzeko dira, piolet eta kranpoien puntak harkaitz hauskorren koska, arrail eta belar nahiz lokatz izotzuan sartuz. Honekin batera, elur-jausien arriskua ez da gutxietsi behar eta komeni da goiz ibiltzea. Kanalen oinak elur-jausiek hormari lapurtutako harkaitz eta txikitutako pagoen lekuko isilak dira.

Azken hamahiru urteotan Asier, Josu, Leku, Iker eta bostok, Aizkorriko ipar horman ia 50 bide ezberdin eskalatu ditugu. Urte hauetako ibilbidea artikulatu bakarrean idazteak duen zailtasunaz jabetuta aukeraketa txiki bat egin dut, zailtasun teknikoaren gainetik bidearen edertasuna lehenetsiz. Artikulu hau Pyrenaicaren 262 zenbakian argitaratu zen Aizkorriko kanalen inguruko artikuluen osagarria da. Izan ere, artikulu hartan azaldutako hiru kanalak artikulu honetako eskaladen ardatz eta hurbilketa nagusiak dira.

Materialari dagokionez, nahiz eta eskalada bakoitzean honen inguruko azalpenak eman, denetan kasakoa, kranpoi eta bi piolet eramatea gomendagarria da. Toponimiarako 2017ko martxoaren 16an Zegamako

TESTU ETA ARGAZKIAK



Xabi Mujika "Smithy"
(Ordizia, 1973)

Batzuetan erizaina, zenbaitetan dietista eta noizean behin eskalatzeko eta mendian korrika egitea gustuko duen mendizalea. Ipurterrea, ohiko bideetatik ihesi eta Euskal Herriko mendietara ezohiko bideak aurkitzen saiatzen dena, Aralar eta Aizkorriko batez ere. Hala ere, aukera duen bakoitzean Pirinioetara ihes egiten du bertako mendi diei bisita egiteko.

udalak aurkeztu zuen "Zegama udalerriko mapa" berriuan oinarritu naiz. Aizkorriko kanal eta ipar hormaren eskaladen inguruko informazio zabalagoa blog honetan topatuko duzue: www.smithyrenbloga.com blogaren "Aizkorriko kanalen txokoa" (http://www.smithyrenbloga.com/p/blog-page_24.html).

AIZKORRIKO GURUTZEA IRALARRAINARDEA ETA SAKONAUNDIREN ARTEKO KANALETIK, "COULOIR" IRTEERA (AD, M3)


Material gomendagarria: 30 metroko bi soka eta zintuztai batzuk kanalaren bigarren irtengunerako.

Iralarrainardea eta Sakonaundi (2017 arte "Kanal laundi Zuzen" eta "Kanal laundi Nagusi" bezala ezagunak), kanalen arteko pagadian bada ezkutuko kanal estua. Kanal hau pagoen artean zuzen-zuzen igotzen da Iralarrainardearen eskuin eta Sakonaundiren ezker adarrek osatzen duten triangeluaren erpinetik gertu amaituz. "Couloir" irteera Aizkorriko eskalatu daitekeen biderik ederretako bat da, mendizalez gainezka izaten

den ondoko Iralarrainardea baino ederragoa inongo zalantzarik gabe. Bertara iristeko biderik errazena Sakonaundi zuzen igotzea da, zailtasuna PD ingurura mugatuz.

Iralarrainardearen oineko zabalunean dagoen Iralarrain gurutzetik eskuinera, zeharkaldi horizontal bat egin dugu Iralarrainardea gure ezkerrean utziz. Sakonaundira iritsi aurreko pagadiaren erdian gutxi gora behera, kanalaren hasiera topatuko dugu, eroritako pago baten ondoan. Kanala zuzen jarraitzea besterik ez da, tartean bi irtengune eskalatu, lehenengoa 2-3 metro eta II mailako zailtasuna duena eta bigarrena II-III zailtasunen artekoa. Bi irtengune hauek eskuinetik (igoerako noranzkoan) zailtasunik gabe ekidin daitezke. Kanalaren amaieran zuhaitz berezi eta bakartia topatuko dugu.

"Couloir" irteerara iristeko, Aitxuri mendira (ipar-ekialdera) 125-150 metro inguruko zeharkaldi horizontala egin behar dugu Sakonaundiren azken metroekin bat eginez. Sakonaundi amaie-







Aizkorriko gurutzea


ran duen hormaren oinera arte zuzen-zuzen igoko dugu. “Couloir” irteera hormaren oinetik ezkerrean diagonalean doa. Irteera honek galtzeko arriskurik ez dauka bi hormen artean mehartuta doalako. Elurraren arabera 60 gradu inguruko hiru irtengune motz topatu daitezke, 55 gradu inguruan mantentzen den kanal mehartu tenteari ukitu alpinoa emanez. Irteera eskalatuta, gandorretik gertu mantenduz, Aizkorriko Gurutzerazuzenduko gara, azken metroak honen ipar horma zeharkatuz eginez. Jaitsiera Irararrainardea edo Sakonaundi kanaletatik egingo dugu.


AITXURI SAKONAUNDIREN IRTEERA ZUZENETIK, LEIZEAREN BARIANTEA (AD, M3, III+)

Material gomendagarria: 30 metroko bi soka, auto-babeserako *friend* batzuk, dozena erdi bat express-zinta eta luzera ezberdineko zinta-uztaiak.

2018an anaia eta biok aurkitutako altxor eder, berezi eta ikusgarria. Irararrainardearen oinetik eskuinera zeharkaldi horizontala egin, pagadia zeharkatu eta Sakonaundiren oinera iritsiko gara. Kanala zuzen-zuzen jarraituko dugu, kanalaren amaierara iritsi arte. Amaieran dagoen hormara iritsi baino 10-15 metro lehenago, errazen ikusiko dugun 3-4 metroko hormatxoa eskalatuko dugu (III-III+ zailtasuna), ezkerrean “Couloir” irteeraren sarrera utziz. Hormatxo hau eskalatuta, pare bat irtengune eskalatu (III) eta gandorrerako bidea ixten duen horma bertikale-

ra iritsiko gara. Hemen bi aukera ditugu: hormaren ezkerretik 45-50 gradu inguruko malda motz batetik gandorrera atera edo, hormaren azpiko erlaitza eskuinera jarraitu amaiera arte. Erlaitzaren amaierako hormaren oinean altxor itzela gordetzen du: horma alderik alde zeharkatzen duen leize txiki edo zuloa. Zuloa estua da eta zeharkatzeko motxila kendu beharko dugu. Erdi arrastaka 3 metro inguru ibili ondoren, gandorrera irtengo gara. Leizearen irteeratik II-II+ zailtasuneko pasabideak eskalatu eta gandorretik gertu mantenduz Aitzuriko gailurrera iritsiko gara. Jaitsiera Sakonaunditik egingo dugu.





AKETEGI ERPINA ETA AKETEGI NARDAGAIZTOTIK, "ESKIROL" IRTEERA (AD+, M4, III-IV)

Material gomendagarria: 30 metroko bi soka, auto-babeserako *friend* batzuk, iltzeren bat, dozena erdi bat express-zinta eta luzera ezberdineko zinta-uztaiak.

"Eskiro!" Aketegi inguruko irteera eder eta estetikoenetakoa da, elur gogorra topatuz gero izugarri gozatuko duguna. Irteera honetara iristeko aukera ezberdinak dauden arren, oraingoan Nardagaizto (2017 arte "Aketegiko Erdiko kanal" bezala ezaguna) eskalatuko dugu, Aizkorriko kanal nagusien artean zailena (AD+, M4, III-IV). Nardagaiztoaren amaieran, Aketegik osatzen duen anfiteatroaren azpian, ezkerrean diagonalean 200 metro inguruko zeharkaldia egingo dugu zelai tentearen erdian dauden harkaitz nabarmenen arteko irtengunera zuzenduz.

Irtengunea eskalatuta (4-5 metro, II+ zailtasuna), ezkerrean zeharkaldi horizontal luze bat egin beharko dugu, Aketegiren ezker kanalak osatzen duen sakanera iritsiz. Elurra gogorra badago, zeharkaldi hau kontu handiz egin behar da sakanera iritsi aurreko 25-30 metroak 50 gradu inguruko malda zeharkatuz egiten baitira. Sakanean sartuta, 15-20 metro zuzen igo (50-55 gradu) eta ezkerrean "Eskiro!" irteeraren hasierako belarrez estalitako horma inklinatua topatuko dugu.


Irteera hiru zatitan banatu daiteke. Hasieran, belar eta elurrez estalitako 5-6 metroetako irtengune erdi-bertikala. Irtengunea eskalatuta, 10-15 metro inguru eskuinera (igoerako noranzkoan) desbideratuko gara 55-60 gradu inguru elur-pala bat eskalatuz. Irteeraren azken zatian harkaitzen arteko 15-20 metro eta 50-55 gradu inguruko kanal mehartua amaiera arte eskalatuko dugu gandorrera iritsiz. Behin gandorrean, zailtasunik gabe Aketegi Erpinaren gailurrera lehenik eta Aketegira ondoren iritsiko gara. Jaitsiera Irauleko Nardasakon (2017 arte "Sakonaundi" bezala ezaguna) kanaletik egingo dugu.

IRAULE ORRATZAREN KANALEKO IRTEERA ZUZENETIK (AD+, M4, IV-IV+)

Material gomendagarria: 30 metroko bi soka, auto-babeserako *friend* batzuk, dozena erdi bat express-zinta eta luzera ezberdineko zinta-uztaiak.

Irteera hau Pyrenaicaren 262 zenbakian azaldutako Irauleko orratzaren kanalaren bariante zail eta zuzenagoa da. Pagadia atzean utzi eta Nardasakon zabaltzen den lekuan eskuinera desbideratuko gara orratzaren azpian kokatuz. Orratzaren oinera iristeko eskuinetik (igoerako noranzkoan) sartu beharko dugu, aurretik belar, lur eta harkaitzez estalitako bi hormatxo eskalatuz. Lehenengo hormatxoa 5-6 metro ingurukoa, 60 gradu eta II-III zailtasunaren baitan dago. Bigarren hormatxoa aldiz, 15-20 metro, 65-70 gradu eta III+ zailtasunera iristen bada ere, piolet eta kranpoiak lurrean sendo sartzen dira. Nahiz eta auto-babeserako aukera gutxi dituen, hormatxo hau eskalatzeko soka-luze bat egin daiteke, orratzaren oinean muntatutako bilgunera arte.

Irauleko orratzaren oinean muntatutako bilgunetik gora zerura zuzentzen den tximinia estua eskalatuko dugu. Tximinian iltze eta espit bat topatu arren komeni da fisurero pare bat eramatea iltze eta espitaren zuloetatik pasatzeko, mosketoi bat, nahiz eta txikia izan, nekez sartzen baita. Honetaz aparte, tximiniak *friend* bat edo beste trabatzeko aukera ere badu. Tximiniaren amaieran hormatxo bertikal bat eskalatuko dugu (IV+ zailtasuna) zailtasunak amaituz. Horma bertikala atzean utzita 3 metro inguru zuzen igo eta eskuin horman jarritako iltzearen parean bilgunea muntatuko dugu. Bilgunetik gora 50-55 gradu inguruko elur-pala eskalatuz gandorrera iritsiko gara eta hemendik, inongo zailtasunik gabe, Irauleko gailurrera. Jaitsiera Irauleko eskuin kanaletik (Zegamako kilometro bertikalak igozten duena) edo Nardasakonetik egingo dugu.





ARBELAITZ, IPAR AURPEGIAREN ZEHARKALDIA (M4, III+)

Material gomendagarria: 30 metroko bi soka, auto-babeserako *friend* batzuk, dozena erdi bat express-zinta eta luzera ezberdineko zinta-uztaiak.

Hau da orain arte Aizkorrin eskalatu ditugun bideetatik zapore gozoena utzi diguna inongo zalantzarik gabe. Hilabeteetan etxean goitik behera miatutako argazki pila eta hormara egindako bisita ezberdinen lanaren fruitua izan zen. Bide hau eskalatzeko nolabait mundu berri bat esploratzeko ari ginenaren sentazioa izan genuen.

Arbelaitz-Iraule zirkuaren laritz-basoko zelaigune nabarmenean kokatutako Itzubiagako bordatik basoan gora nahiko zuzen igoz, basoan ezkutaturiko kanal motz batera iritsiko gara, Arbelaitzen ipar aurpegian sartzeko giltza duen irtengunera eramango gaituena, hain zuzen ere. Kanaltxo honen inklinazioa ez da 40-45 gradutik igotzen. Erdialdean gutxi gora behera, ezkerretik saihestu daitekeen 6-7 metroko irtengune bertikala dago. Lehen irtengunea atzean utzi eta 45 gradu inguruko maldatik 40 metro eskas igo ondoren eskuinetik saihestu daitekeen bigarren irtengune batekin topo egingo dugu. Bigarren irtengunea atzean utzita, Iraule eta Arbelaitzen zirkuak osatutako zabalune handira iritsiko gara. 45 gradu duen elur malda zuzen igo ondoren, Arbelaitzen ipar hormaren barrura sartuko gaituen irtengunearen oinera iritsiko gara.

Irtengunea eskalatzeko 30 metro (III+ edo IV zailtasuna duena) eta 25 metroetako (III zailtasuna duena) bi soka-luze eskalatu ditugu. Irtengunea atzean utzi eta, 50-55 gradu duen malda igo ondoren, Arbelaitzen ipar aurpegia alderik alde zeharkatzen duen erlaitz estura iritsiko gara, koba ezkutu batean amaitzen dena. Ageriko zeharkaldi bat eginez, erlaitza alderik alde ezkerretik eskuinera jarraitu eta kobara iritsiko gara. Hemendik aurrera, eskuinera (ipar horma parez pare begiratzen badugu) doan ageriko bigarren erlaitz bat jarraituz Arbelaitzen gailurretik 25 metro eskasera irtengo gara. Jaisteko biderik azkar eta errazena Irauleko eskuin kanala da.

